

ra'ren idazki-aurena egiteko, lendik aukeratu-ta daude, ta lan ori len bailen amaitzeko bide ta kemen egin bea' dira.

10. Azkue jaunak *Euskal-atzizkiak* iraku'ri ditu.

Ta beste gairik izan ez ta, araudi otoitzez amaitu da batza'raldi auxe ere.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1922'ko Garaga'ri-ila'ren 26'an.

Ileroko batza'raldian bildu diran euskaltza'nak, abek izan dira: Azkue, maipuru, Kanpion, Urkijo, Lakonbe, Lande'retze, Intza, Altube, Eguskitza, Olabide, Intza-garai, ur'gazlerik batez.

Araudi-otoitzez batza'raldia asi da.

1. Aita Intza'k, Iru'ña'ko Apaiz-ikastetxea'n euskerazko ikastaroa ja'rtzera dijoazela, diyo. Lendik Euskaltzaindia'k erabaki-ta dauka *500 peseta* ematea, ikastaro oni laguntzeko. Irakaslea aukeratu-ta dago. A'rayoz'en dagon apezta da: Esteban Ira'ñeta jauna. Jaun onek or'dea ikasle izatekotan, bizipide on bat utzi bea' du, ta ur'iyago bizi. Aita Intza'k Euskaltzaindia'ri galdetzen diyo: 500 peseten or'dez, 1.000 eman ote dezakiken. Euskaltzaindia'ren erabakia: Napa'ro'ko Aldundia'k agindurik dauzkayon 3.000 peseta eskuratu laxte'r, Euskaltzaindia'k gogoz emango ditu *1.000 peseta*, Iru'ña'ko euskera-ikastolarako.

2. Aita Intza beronek, naigabez beterik azaltzen du, zenbat eta zenbat euskera galtzen dijoan E'roiba'r, Esteriba'r, Artzeiba'r ta beste Napa'roa'ko e'rki askotan,

ta euskera zuzpeitzeko zer bait entzungarri egin bear litzakela. Euskaltzaindia'k ikeraldi bat araxe egin dezake; bañan ori gerfa baño len, batzorde bat auke- ratzea on litzake, onetxek aurre-lanak gerfu ditzan. Batzorde onen buru Aita Intza bera izan bedi, ta Batzarikideak, Napañoa'n beñtan, aukeratu bitza.

3. Kristau-ikasbidea, baztandarez ipintzeko lana Aita Intza beroni egotzi zayo.

4. Gerfika'ko Batzararoan. Bizkai'ko auzo-ikas- tetxetako mufil eta neskatiletik bat edo bi, angoxe azterketara, etofi bitez.

5. Montaner jaunari bere *mapa*'ren zatitxo bat, (batez ere, Jaizkibel eta bere inguruko bazter-izene- tan) ondo ipintzeko Intzagarai euskaltzainak lagundu bezayo.

6. Aita Soloeta-Dima'ren eskutitza irakuñi da. Onetzaz euskaltzainak luzaro itz egin dute, bañan urengo batzaraldirako erabakiya utzi da.

7. *Euskal-atzizkia*'ren lana maipuruak irakuñi du.

Ta otoitzaz, amai eman zayo batzaraldi oni.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1922'ko Garagar- ila'ren 27'an.

Aurreko Batzaraldian aipatzen diran euskaltzain berak bildu dira; Azkue, maipuru. Beronek egin ditu araudi-otoitzak, ta asiera eman zayo batzaraldi oni.

1. Aita Soloeta-Dima'ren eskutitzaz oster a ere lu-